



ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONEN BIZI-KALITATEA

DIMENTSIOA: ESKUBIDEAK


Hausnarketarako galdera hauek proposatzen dizkizugu... animatzen zara?

Ikertzeko puntuak: zer dira eskubideak?

Jendeak pertsona gisa baloratzen nau eta besteak bezala tratatzen nau. Nire iritzi eta desioak izan ahal ditut. Adibidez, nire iritzia eman ahal dut jan nahi dudana, nora joan nahi dudana, nola pasatu nahi dudana ondo edo norekin egon nahi dudana adierazteko. Jendeak nire izaera, nire iritziak eta desioak errespetatzen dituela sentitzen dut. Jendeak nire intimitateari begirunea erakusten diola sentitzen dut ere. Nire eskubideak ezagutzen ditut eta badakit nola eskatu ahal ditudan. Nire betebeharrak ere ezagutzen ditut.

Nire eskubideak nola dauden aztertzeko, honako hau izaten dut kontutan:

- Neure tokia daukat eta beste pertsonak errespetatzen dute. Nire gela eta neure gauzak, adibidez.
- Jendeak begirunez tratatzen nauela sentitzen dut.
- Nire eskubideak ezagutzen ditut eta jendeari hauek errespetatzea eskatzen diot.
- Nire ardura eta betebeharrak ezagutzen eta zaintzen ditut. Adibidez, denon lekuak zaintzen, jendea begirunez tratatzen eta dagozkidan eginbeharrak betetzen.



Nire tokian jartzeko galderak: zer pentsatu eta sentitzen dugu adimen urritasuna dugun pertsonok?

Adimen urritasuna duten zenbait pertsonak bozkatzeko bere eskubidea galtzen dute epaile batek egiteko ahalmena legalki aldatzen dienean. Eskubide hau berreskuratu nahi badute, legezko prozedura hasi behar dute. Hauek dira adimen urritasuna duen pertsona batek epaileari idatziz aurkeztu zizkion arrazoiak bozkatzeko bere eskubidea berreskuratu ahal izateko:



- “Nahiz eta ezgaituta egon eta nire bizitzaren beste gauzen mailan laguntza behar izan, badaukat nire ordezkari politikoa aukeratzeko eskubidea”.
- “Gaur egun gizarteratze duina izateko nire elkartearen jarduera desberdinetan laguntzen dut gure iritzi eta akzioetan hitza eta botoarekin. Gaur egun lantegi batean dihardut eta informatikako munduan nabil, hainbat blog ditut”.

2- Tanto derecho a elegir mi representante político, aunque este incapacitado, y puedo tener ayuda a nivel de otras cosas de mi vida

3- Hoy en día colaboro en distintas actividades de mi asociación, así como también en cuestiones de opinión y acciones, para tratar

Hausnarketarako galderak: Zer uste duzu? Zer sentitzen duzu?

Zer uste duzu esperientzia honi buruz?, nola sentituko zinateke zu egoera honetan?, eta epailea izango bazina, zer jarrera hartuko zenuke?

Partekatzeko galderak: zer pentsatzen dute beste pertsona batzuek?, zer sentitzen dute?

Raquel Cárcamo-k, Sartze Osoko Zuzendaritza-Batzordearen kidea eta Bozgorailua Kooperatibaren presidentea den adimen urritasuna duen emakumeak, adimen urritasuna duten pertsonen botorako eskubidea aldarrikatzen du eta hura errebindikatzera animatzen ditu.

<https://www.youtube.com/watch?v=22opzx3D4og>

Raquel-ek hurrengo azaltzen digu:

- Botorako eskubidea herritar guztion eskubidea da.
- Legeak dio epaile batek soilik eskubide hau ken diezaiokeela pertsona bati ezgaitasun-sententzia baten bidez.
- Adimen urritasuna duten pertsona askok ezin dute botoa eman, epaile batek ezgaitu dituelako.
- Askotan desgaitze hau ez dago arrazoituta.

Sartze Osoak mundu osoak zera jakitea nahi du:

- Pertsona guztiek daukatela botoa emateko eskubidea, baita adimen urritasuna duten pertsonak ere.
- Epaileek pertsona batzuk ezgai ditzaketela beren bozkatzeko eskubidea kendu gabe.
- Ezgaitutako pertsonak botoa eman ahal izateko bere desgaitzea ikuska dezala eska diezaioketela epaile bati.
- Bere familiek ere eska dezaketela.
- Hautesle-Erroldaren zerrendan badago, urritasuna duen pertsona bati inork ezin diola bozkatzera debekatu.
- Sartze Osoak egoera hau salatu du eskubideari buruzko adituen (Sartze Osoko Legelari Sareko) sarean zehar.

<http://www.mivotocuenta.es/tienes-derecho.html>



Zeure ondorioak:

A large rectangular area with a light green background and a dark green border, containing horizontal dotted lines for writing.